

499/2025 EBAZPENA, martxoaren 5ekoa, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez Bilbo-Basurtuko ESiko Kudeaketa Sanitarioko Unitateko (K.S.U.) Zerbitzu Sanitarioko burua hautatzeko deialdiko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzen den.

AURREKARIAK

Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerentearen urtarrilaren 14ko 36/2025 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Bilbo-Basurtuko ESiko Kudeaketa Sanitarioko Unitateko (K.S.U.) Zerbitzu Sanitarioko burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketa-sistemaren bidez (2025eko otsailaren 3ko EHAA 22 zk. eta 2025eko otsailaren 10eko BOE 35 zk.).

Deialdian aurreikusitakoaren arabera, Ebazpen horrek eskabideak aurkezteko 15 egun balioduneko epea ezartzen du Ebazpena dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen den azken dataren biharamunetik zenbatzen hasita. Epe hori 2024ko urriaren 14an amaitu zen.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Deialdian ezarritakoaren arabera, eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Bilbo-Basurtuko ESiko zuzendari gerenteak ebazpena emango du onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko, eta, baztertuen kasuan, baztertzeko arrazoia adieraziko du. Horrez gain, agindua emango du Ebazpena Osakidetzaren webgunean argitaratzeko, eta hamar egun balioduneko epea emango du, argitaratzen den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita, erreklamazioak bide administratibotik aurkezteko.

Adierazitako guztiagatik, langileen alorrean indarrean den legediak aitortzen dizkidan ahalmenez baliaturik, Osakidetzako Estatutu Sozialak arautzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 15.1 e) artikuluari jarraikiz (azaroaren 14ko EHAA 219. zk.) eta lehiaketa arautzen duten oinarriak betez,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bilbo-Basurtuko ESiko Kudeaketa Sanitarioko Unitateko (K.S.U.) Zerbitzu Sanitarioko Burua izeneko lanpostua betetzeko lehiaketako hautagai onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzea. (I. eranskina)

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetzaren webgunean argitaratzea.

Hirugarrena.- Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Bilbo-Basurtu ESiko Zuzendaritza Gerentziari, hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Bilbon, 2025eko martxoaren 5a.

Bilbo-Basurtu ESiko zuzendari gerentea,
JESÚS MARÍA LARRAÑAGA GARITANO



Osakidetza
BILBO-BASURTO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO
ZUZENDARI GERENTE
DIRECTOR GERENTE
Izpt/Fdo.: Jesús Larrañaga Garitano



I. ERANSKINA

**KUDEAKETA SANITARIOKO UNITATEKO (K.S.U.) ZERBITZU SANITARIOKO BURUA
IZENeko LANPOSTUA**

Onartuen behin-behineko zerrenda:

- Maria Luisa Arteagoitia Gonzalez andrea

Baztertuak:

- Inor ez